

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### IEKORAKO UDALA

#### Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko errolda jendaurrean jartzea eta zerga kobratzeko moduan jartzea

lekorako trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko erroldari behin-behineko onespena eman ondoren, espedientea hogeitun egun baliodunez egongo da jendaurrean, iragarki hau udalaren iragarki taulan argitaratu ondorengo egunetik aurrera, aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa martxoaren 20tik maiatzaren 20ra izango da, biak barne.

Ordainketa inolako kreditu erakundetan helbideratu ez duten zergadunek udalak Kutxa-banken daukan kontuan ordaindu beharko dute borondatezko epearen barruan.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Zergadunei jakinarazten zaie ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, lekorako Udalean izapidetu behar direla.

Borondatezko aldiko dirubilketa aldia amaitu ondoren, ordaindu gabeko kuotak premia-menduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekaruak eta, hala badagokio, berandutze interesak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

lekora, 2025eko otsailaren 10a

*Alkate-lehendakaria*  
**ALFREDO ARGUIJO ECHAZARRETA**